

Harian

» 12 ■ Ikasleen %60, D ereduan
Arabara, Bizkaian eta Gipuzkoan D eredua da nagusi;
A eredua jaitzi egin da; eta B eredua, berriz, igo.

Euroituna aztertuko dute aste honetan Madrilen

Europako adituekin bilduko dira hizkuntza eskubideen aldeko taldeak eta erakundeetako ordezkariak

ALBERTO BARANDIARAN

Iruñea

Espainiako Gobernuak Hizkuntza Gutzituen Euroitunaren interpretazio «zikiratu eta murriztu» egin duela salatuko dute hizkuntza eskubideen aldeko taldeek, Europako Kontseiluaren aditu batzordeko kideekin aste honetan Madrilen egingo dituzten lan bileretan. Bertan, gainera, Nafarroako egoera azpimarratuko dute, Euskara Kultur Elkargoak (EKE) eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak uste dutelako Euroituna, aipatu interpretazio dela eta, Euskararen Legea bera baino murriztaileago bihurtu dutela.

Europako Kontseiluaren adituak aste osoan izango dira Madrilen, eta ostegunean eta ostiralean euskal ordezkariak elkartuko dira. Bertan, Espainiako Gobernuak igorritako txostenaren gaineko iritzia bilduko dituzte adituek.

Hau da Euroitunaren jarraipen taldeak egiten duen bigarren txostena. Duela lau urtekoan, hainbat gomendio egin zizkion Espainiako Gobernuari, Hego Euskal Herriko administrazioei jakinarazteko. Garrantzitsuenak, hedabideetan hizkuntzaren erabilera sustatzeko neurriak sustatu beharra, eta Nafarroako eremu mistoan babes neurriak ezartzea. Hizkuntza eskubideen aldeko taldeen iritziz, administrazioek ez dute bi gomendioetako bakar bat ere aintzat hartu.

DERRIGOR BETE BEHARREKO ITUNA. Europako Hizkuntza Gutzituen eskubideen ituna, edo Euroituna, 2001eko apirilean sinatu zuen Espainiako Estatuak, eta urte hartako irailean Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik, derri gor bete beharrekoa da haren menpeko administrazio eta era-

kundeetan. Frantziak izenpetu, izenpetua du ituna, baina gero ez du testua berretsi, bertako kontseilu konstituzionalaren iritziz, hainbat neurri Frantziako konstituzioa urratzen zutelako. Eragina izan dezan estatuek berretsi egin behar dute testua.

Ituna betearaztea Europako Kontseiluaren eskumena da, eta, sinatu eta urtebetera, batzorde berezi batek lehen txostena egin behar du. Handik aurrera, hiru urtean behin, estatu izenpetzaileak kontuak eman behar ditu kontseiluaren aditu batzordearen aurrean.

Aurtengo udaberrian egindako bigarren txosten horretan, Espainiako Gobernuak argi eta garbi azaldu zuen, Nafarroari dagokionez, Euroituna bakarrik eremu euskaldunetan dela aplikagarria, «euskara bertan bakarrik delako koofiziala». Hala ere, hizkuntza eskubideen aldeko taldeek beti azpimarratu dute Europako adituek eremu mistoko zonarako gomendioak egin dituztela maiz, eta horiei buruz aipu eta adibide asko jaso dituztela Nafarroara egindako bisitetan eta txostenetan.

Espainiako Gobernuaren interpretazioa, beraz, «murriztaile eta zikiratzaile» litzateke talde hauen ustetan, Euskararen Legea bera baino murriztaileagoa. 1986ko Legeak eta administrazioan euskararen erabilera sustatzeko dekretuak onartzen dute euskara ikas-



Oinarriak-ek euskararen ofizialtasunaren alde Iruñean eginiko manifestazio baten irudia. JACOBA MANTEROLA / ARCAZKI PRESS

teko edo administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea Nafarroa osoan dagoela.

Bigarren gomendio nagusia hedabideei dagokie. Europako adituek azpimarratu zuten, aurreko txostenetan, EAEko komunikabide elektroniko pribatuetan eta Nafarroako irrati eta telebista saioetan euskararen erabilera sustatu

beharra zegoela. Espainiako Gobernuak, azken txostenetan, argudiatu du sustatze lan hori diru laguntza deialdi publikoen bidez babestuta dagoela. Euskalerrira Irratiaren kasua adibidez hartu zuten adituek Nafarroara egindako aurreko bisitan. Irrati horrek, alabaina, diru laguntzarik eta lizentziarik gabe jarraitzen du.

Adituen txostenak, bestalde, EAEko eta Nafarroako erakunde- en arteko elkarlana gomendatzen zuen, eta lankidetzat hori eman, ematen dela erantzun du, orain, Espainiako Gobernuak: EGA ziurtagiria aipatzen du horren adibidez. Mugaz gaindiko elkarlanaren adibide gisa, berriz, Interreg proiektua ageri dute, egitasmo horrek hizkuntzaren sustapenarekin zerikusirik ez duen arren.

■ europako kontseiluaren ondorioak eta gomendioak

ondorioak

■ **Babes falta.** Europako adituek ondorioztatu zuten, azken txostenetan, «arrakala garbia» dagoela hartutako konpromisoen eta dagoen babes mailaren artean.

■ **Justizia administrazioan arazo handiak.** Txostenaren arabera, justizia administrazioaren antolamendu eta eginbideetan arazo handiak daude. Eta horrek konpromiso garrantzitsuak eragotzen dituela dio, «bereiziki epaia hizkuntza horretan egin ahal izateak».

■ **Administrazioak.** Adituen batzordeak

arazoak ikusi zituen udal administrazioan, eta Nafarroako administrazioan. Horren harira, Nafarroako eremu mistoan ere konpromisoak berretsi beharko liratekeela nabarmendu zuen.

■ **Gehiengo erdalduna.** Txostenak, bere gomendioetan, «gehiengo erdalduna hezi beharra» nabarmendu zuen, «tokian tokiko berezitasunak onartzeko».

Gomendioak

■ **Hedabideetan.** Adituen batzordearen ondorioz, Europako Kontseiluaren Minis-

trin Batzordeak hainbat gomendio egin zizkion Espainiako Gobernuari. Horien artean garrantzitsuenetakoa, EAEko komunikabide elektroniko pribatuetan eta Nafarroako telebista eta irrati programazioetan euskararen erabilera sustatzea.

■ **Nafarroako eremu mistoan.** Bigarren gomendio nagusia Nafarroako hizkuntza bereizketaren ingurukoa egin zuen Minis-

OSTEGUN ETAK OSTIRALEAN BILERAK. Espainiako Gobernuaren argudioak aste honetan erantzun gero dituzte, beraz, euskal erakunde eta hizkuntza eskubideen aldeko taldeetako ordezkariak. Ostegunean, Paul Bilbao Behatoki zuzendaria, epaile eta legegarien ordezkari bat, eta EUDEL Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Udal eta Kontzejunen Federazioa, Herrikoa eta Euskara Kultur Elkargoko ordezkariak izango dira adituekin. Ostiralean, berriz, Nafarroako Hizkuntza Politikako ordezkarien txanda izango da Madrilen.